



BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure egunerokoan, goizetan bereziki, pertsona askok tostadak gurinarekin gosaltzen ditugu eta askotan, zaila egiten zaigu hura labainarekin hartzea eta tostadaren gainean zabaltzea gogorra dagoelako. Horretarako, gurina ontziki berritzaile batean sartuko dugu, kolazko barraren antzeko formatuarekin eta horrela, tostadaren gainean askoz ere errazago zabalduko dugu, paper bateri kola emango geniokeen antzera. Gure produktua, oso praktikoa da edozein adineko jendarentzat eta denbora aurrezten dizula ziurtatzen dizugu. Onura hauen artean, labainaren erabilera daukagu adibidez. Gure produktua erabiltzen baduzu, ez duzu labainik erabili behar izango, beraz, alde batetik, ez zara gurina ontzikitik ateratzeko eta tostadan zabaltzeko borrokan egon beharko goiz goizetik. Beste alde batetik, ez duzu ezer garbitu beharko eta batez ere, seme-alabak izatekotan, oso lagungarria izan daitekeela esan daiteke, gurina haiek bertan tostadaren gainean zabaltzeko ahalko dutelako inungo arriskurik gabe. Honekin batera, gaur egungo ontzikiaren formatuarekin, labaina beharrezkoa da eta hura erabiltzerakoan, soberakinak gelditzen dira bertan eta produktua asko desaprobetxatzen da, orduan, guk sortutako ontzikiaren formatuarekin, ez zen elikagaia gaitzetsiko.

Jarraian, gure produktua oso erakargarria dela pentsatzen dugu, alde batetik, berritzailea eta salmentara inoiz iritsi ez den produktua delako. Honek, kontsumitzaile asko erakarriko ditu; saltzeko erraza izango den ekoizkin bat da eta ziur gaude modan jarriko den produktu bat izango dela eta horrela, baliteke, gaur egungo ontzikiaren formatua deuzesten joatea eta gure berrikuntza urteetan zehar kontsumitzaile asko izatea.

Era berean, esan dezakegu, nahiz eta hainbat lehiakide izan eta hauek merkatuaren kuota beraien artean banatua izan, Asturiana esaterako, gurina kontsumitzeko era berri bat sortu dugula, kafearen kasuan Nesspresok egin zuen antzera. Ildo beretik, aipatzekoa da, ez dugula gure gurina ekoiztuko, inguruneko baserriei gurina erosiko diegulako, km 0-koa izanik; horrela, azkenik, merkatuan posizionamendu bat lortuz. Izan ere, ekoizpen prozesuari dagokionean baserritarrak izango dira gurina ekoizteaz arduratuko direnak, ekoizpen prozesuaren kate oso bere baitan hartuz, behiak haztetik gurina era artisau batean ekoiztu arte.